

LEHENENGO HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B1 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

[A eredua]

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **1h 50 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira. • Hiru irakurgai eta guztira 25 galdera. Balio berekoak (0,8 puntu). Gainditzeko, 13 erantzun behar dira zuzen. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. • Testuen luzera guztira: 1.000 hitz gehienez. 	50 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira. 	60 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan**.
- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuzetat da**.

1. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderei.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

SERGIO HERNANDEZ «TXENTXO»

Lehenengo urtea da Sergio Hernandez "Txentxo" nafarrarentzat bertsolari-txapelketan laguntzaile. «Mezkiritzekoa naiz, Orreagatik hurbil. Txiki-txikitatik maitatu dut bertsoa. 10 urterekin *Hitzetik Hortzera* bertso-saioko programa guztiak grabatzen nituen. Orduan inork ez zuen bertsoa maite nire inguruan, futbola maite zuten bakarrik. Arraroa nintzen euskaraz nekielako; eta, bertsoak entzuten nituelako, oraindik arraroagoa».

Baina duela bi urte Erron bertso-eskola bat osatzea lortu zuten. «Hori zen nire ilusioa, sekula bertsoz botako ez dudan arren, oso txarra eta burugogorra naizelako». Ostegunero biltzen dira batzuk herriko eskolan bertsoan aritzeko.

Bertsolari-txapelketan ia saio guztietan izan da, edo lanean edo ikusle. Aulkiak, kartelak, mikroak... beharrezko guztia jartzeko, hor dago. Sarreran eta komunetan, jendeari esplikatzeko nondik sartu eta atera. Bertsolariak kantuan ari direla, ez mugitzeko esateko ere bai. Taberna baldin badago, beti arazoak sortzen dira eta jendea isilaraztea ere tokatzen zaio. «Baina ez da arazo handirik izaten. Erne egon behar gauza guztietara. Bertsoa entzuten ari naizenean, ordea, norbait mugitzen dela ikusten badut, urduri jartzen naiz».

Goizean goiz, 09:00etarako, pilotaleku edo kiroldegian izaten da fin-fin. «Mezkiritzetik ia bi ordu ditut saioa edonon izanda ere. Orduan, 07:00etan ateratzen naiz etxetik. Txarrena da berandu samar itzultzen naizela, gauerdia aldera, dena bildu eta txukundu ondoren».

Autoan, etxera bidean, saioa nola joan den baloratzen du. «Beldur pixka bat izaten dut zeozer gaizki ateratzeko, baina normalean dena ongi joan eta gustura itzultzen naiz».

Bertsolariekin harremana izatea pozgarria zaio. «Itzela da eurekin egotea bakarrik. Bataren eta bestearen gauzak ezagutzen dituzu. Publikoan bazaude, saioa ikusi eta alde egiten duzu; baina lanean, saioaren ostean, erreakzioak ikusten dituzu, eta hori handia da».

Traktorearekin ibiltzen da Txentxo mendietan sasiak kentzen, makinak konpontzen ere bai. «10-14 orduz ibiltzen naiz traktorean egunean eta bertsoak izaten ditut lagun. Asko miresten ditut bertso zaharrak, Xabier Amurizarenak-eta. Gure eskualdean lehen jendeak ez zituen ezagutzen. Orain, gazteek, bai».

Dioenez, Erron euskara erabat galdu zen Francoren garaian. Orain asko berreskuratu da. «38 urte ditut eta nire adinetik behera denek euskaraz egiten dute eskolan. Halere, eguneroko bizitzan dena erdaraz egiten dut. Txapelketan, berriz, guzti-guztia euskaraz. Nolako aldaketa!».

IANTZI, M.

Gaur8, 2017ko azaroa. Egokitua

1. ariketa. Aukeratu erantzuna

1. Noiztik dabil Txentxo lanean bertso-txapelketan?

- a) Duela denbora gutxitik.
- b) Duela 10 urtetik.
- c) Ume-umea zenetik.

2. Zer dio Erroko bertso-eskolaz?

- a) Ilusioa duela sekulako bertsoak botatzeko.
- b) Aspaldiko gogoia bete duela.
- c) Bertsoarako burugogorra izan behar dela.

3. Zer egiten du bertso-saioetan?

- a) Bertsolariei ez mugitzeko esan kantuan ari direnean.
- b) Saioaren antolakuntzan lagundu.
- c) Tabernan egon eta giro ona sortu.

4. Noiz abiatzen da etxera?

- a) Saioa bukatu bezain pronto.
- b) Eginbeharreko guztiak bukatu ondoren.
- c) Saioa bukatu eta ordu erdira, gauez.

5. Txentxok zeri izaten dio beldurra?

- a) Jendea isilik ez egoteari.
- b) Etxera berandu iristeari.
- c) Gauzak behar bezala ez joateari.

6. Txentxoren ustez, onena?

- a) Ikusle guztiek bezala jarraitzea saioa, bukaera arte.
- b) Publikotik saio osoko erreakzioak ikustea.
- c) Bertsolariekin tratua izatea saio-bukaeran.

7. Zertan egiten du lan?

- a) Mendiak garbitzen eta beste hainbatetan.
- b) Traktoreak konpontzen.
- c) Nekazaritzan eta bertso zaharrak biltzen.

8. Zein egoera bizi du euskarak Erron?

- a) Gazteek badakite, eskolari esker.
- b) Francorekin zerbait galdu zen.
- c) Kanean berreskuratu egin da asko.

9. Zer jarrera du bertsolaritzarekiko?

- a) Bere-berea du, odolean darama.
- b) Gustukoa du, ikusle gisa.
- c) Lanerako eta mintzatzeko erabiltzen du.

2. ariketa

Irakurri ondorengo testuak. Hurrengo orrian esaldi batzuk dauzkazu. Esaldi bakoitza testu bati (A, B edo C) dagokio.

Lotu esaldiak eta testuak.

A ETXALAR

Etxalarko Kultur Batzordeak festak iragartzeko kartel- eta azal- (portada) lehiaketa antolatu du:

-Edozeinek parte har dezake lehiaketan eta nahi adina lan aurkez daitezke.

-Kartelak formatu digitalean aurkeztu behar dira 300pp erresoluzioarekin edota kartulina edo paper lodian A3 neurrian. Azalak, berriz, A4 neurrian, eta argazkiz edo marrazkiz eginak izan behar dute. Bietan teknika librea erabil daiteke.

-Lanek jatorrizkoak eta inon argitaratu gabeak izan behar dute.

-Lanak ekainaren 16rako aurkeztu behar dira Etxalarko kultur etxean edo kulturetxea@etxalar.eus helbidean. Ezizen bat jarri behar da, eta aparteko gutunazal batean erantsi egilearen datuak.

-Kartelaren irabazleak 50 euro eta Herriko Ostatuan bi lagunentzako otordua jasoko ditu; azalaren irabazleak, berriz, 100 euro.

< www.erran.eus > Egokitua

B OÑATI

Oñatiko Udalak jaietako egitarauaren azala aukeratzeko deialdia egin du:

-Lehiaketan, 18 urtetik gorako edozeinek har dezake parte.

-Teknika librea izango da (argazkia, pintura, marrazkia, collagea, e.a.). Lanak originalak izan eta euskarri gogorrean aurkeztu beharko dira.

-Lehenengo saria emateko epaimahaian aditu talde batek izango du ardura.

-Bigarren saria herritarrek aukeratu dute bozketaren bidez, uztailearen 21etik 27ra bitartean, kultur etxean egingo den erakusketan.

-Lehenengo saria hirurehun eurokoa eta 200 txantxikoa (Oñatiko moneta soziala. Txantxi 1 = euro 1) izango da. Bigarren saria 200 txantxikoa izango da.

-Antolatzaileek ez dituzte beren gain hartuko lehiaketan parte hartzen duten lanek jasan ditzaketen galera edo kalteak.

< www.oñati.eus > Egokitua

C ELGOIBAR

Elgoibarko Udalaren Kultur Batzordeak lehiaketa antolatu du San Bartolome Jaietako programaren azala aukeratzeko:

-Lehiaketa honetan 18 urtetik gorako edozeinek har dezake parte.

-Teknika librea izango da. Lanak euskarri gogorrean aurkeztuko dira.

-Egile bakoitzak bi lan aurkeztu ahal izango ditu gehienez, lehenik argitaratu gabeak. Ezin da aurretik aurkeztutako lanekin parte hartu.

-Sari bakarra izango da, zazpiehun eurokoa.

-Saridunek saria jasotzera etorri beharko dute, eta ezinezkoa bazaie, ordezkariaren batek jaso beharko du. Horrela izan ezean, saria baliogabetu egingo da.

-Generoa irudikatzen erabiltzen diren irudietan oreka izan beharko da kontuan, rol eta estereotipo tradizionalak azpimarratu gabe. Halaber, baztertu egin beharko da sexu, arraza, adin, kultura edo sexu aukeraren arloko tratamendu diskriminatzaileak.

<www.elgoibar.eus> Egokitua

2. ariketa. Lotu esaldiak eta testuak

10.	Sariak jasotzeko, irabazlea edo ordezkoa joan beharko da.
11.	Lanek ez dute egilearen benetako izena jaso behar.
12.	Bozketa bidez emango da sari bat.
13.	Bazkaria edo afaria ere izan daiteke sarietako bat.
14.	Lanek giza eskubideak errespetatzea guztiz beharrezkoa izango da.
15.	Txanpon berezia erabiliko da saria emateko.
16.	Norberak aurkez dezakeen lan-kopuruak ez du mugarik.
17.	Lanak hondatuz gero, antolakuntzak ez luke erantzungo.

A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C

3. ariketa

Elkarrizketa bat irakurriko duzu. Testuan, kazetariak egindako galderak falta dira. Hurrengo orrian dituzu galderak. **Lotu galderak eta erantzunak.**

Markatu testuko hutsuneak (18, 19, 20...) betetzeko zein diren galdera egokienak (A, B, C...).

Galdera bat sobera dago.

ANDRES VILARIÑO

50 urte hauetan lortutako kopa ugari ditu etxean Andres Vilariño auto-gidari ohiak (Donostia, 1951). Lau aldiz Mendiko Lasterketako Europako txapelkun, proba asko irabazi ditu.

18

Oso gogorra. Nik kirol asko egiten dut egunero: bizikletan ibili, arrauna, gimnasioa... Orain arte lehiatzeko sasoiari egotea zen motibazioa. Dagoeneko ez dut horrelakorik. Kirola egiten dut sasoiari egoteko. Hutsune handia nabari dut: abiadurarena, lehiarena, lasterketako parajea, ...

19

Azkenaldian semeak esaten zidan beldurra ematen ziola nik lehiatzen segitzeak. Baina, bestela, ez. Izan ere, bazekiten automobilismoa nire bizitza zela. Dena den, pozik daude. Behar zuten nik uztea. Halere, oraindik, ez dute erabat sinesten betiko denik. Dena zor diet, batez ere emazteari.

20

Bai, handiena pasatu nuen Le Manseko 24 orduak estreinakoz korritzean. Lehen, autoek abiadura handia hartzen zuten. Pentsa, urte hartan Peugeot batek orduko 407 kilometroko abiadura hartu zuen. Gu orduko 360 kilometroan ibili ginen. Hori asko zen; gainera, ez nengoen ohituta zirkuituetan korritzera.

21

Egungoekin gehiago disfrutatzen duzu gidatzen, eta autoak ziurragoak dira. Horregatik hartzen dira arrisku handiagoak. Ez du zerikusirik. Dena den, onartu behar dut klasikoetatik berrietarako saltoan oso gaizki pasatu nuela. Ez nekien autoak nola jarri prest.

22

Aita izan zen erruduna. Familiak biltegi bat zuen Debako industrialde batean, eta beste bat Lasarte-Oriakoan, eta aitak han irakatsi zidan gidatzen. 8 urte izango nituen lehen aldiz auto bat gidatu nuenean. Umea nintzen. Beti nahi izaten nuen aitarekin biltegiara joan gidatzeko. Gogoan dut autoaren matrikula: NA-0989.

23

Egia esan, ez. Bost bat istripu larri izango nituen. Larriena Arrateko igoeran izan nuen. Barreretako bat lepoan iltzatu zitzaidan. Italian ere ezbehar handi bat izan nuen. Autotik airean atera, eta tibia apurtu nuen. Baina, hamabost egunera, Espainiako Txapelketa irabazi egin nuen. Ondoren egin zidaten ebakuntza.

24

Mantso noala. Bidaia luzeak egiteko, abiadura mugatzeko gailua jartzen dut martxan, eta horrela ez dut behar baino azkarrago joateko tentaziorik. Hala, abiaduragatik ez dizkidate puntuak kenduko.

25

Behin bakarrik, Andoaingo bihurguneetan. Orduko 80 kilometrokoa da gehienezko abiadura, eta orduko 120 kilometrorara nindoan, emaztearekin hizketan. Ez nintzen ohartu. Sei puntu kendu zizkidaten; disgustu handia hartu nuen.

ARRATIBEL A.

Berria. 2018ko azaroa. Egokitua

3. ariketa. Lotu galderak eta erantzunak

- A. Inoiz pasatu al duzu beldurrik?
- B. Zergatik erabaki duzu uztea?
- C. Zaila izan da lehia uzteko erabakia hartzea?
- D. Gidatzeko zer nahiago dituzu, lehengo autoak edo oraingoak?
- E. Askotan jarri al dizute isuna?
- F. Etxekoek askotan eskatu dizute uzteko?
- G. Auto asko apurtu al dituzu urte hauetan?
- H. Norengandik jaso zenuen zaletasuna?
- I. Zer sentitzen duzu auto arrunt bat gidatzean?

■ Idatzi zenbakiari dagokion letra ondoko laukietan:

Hutsuneak	18	19	20	21	22	23	24	25
Galderak								

Soberakoa

Soberako aukera hau ez da jaso behar erantzun-orrian.

Oharrak

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- **Emandako informazioa ezin duzu hitzez hitz kopiatu.**
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten: **ez da zuzenduko irakurri ezin denik.**
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Ez jarri zure izen-abizenik; **asmatu izenpea anonimotasuna bermatzeko.**
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - Eskatutako guztiari erantzun diozun.
 - Ideiak garbi adierazi dituzun.
 - Euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna edota aberastasuna.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.
EGIN ARIKETAK HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN.**

1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **inprimakia** bete behar duzu.
Gutxienez 50 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Udal liburutegian dagoen liburu-aukera eskasa da, eta, gainera, dauden liburuak oso aspaldikoak dira. Udaletxean kexa jartzea erabaki duzu.

Azaldu zer kalte sortzen dituen egoera horrek, eta proposatu zein izan daitekeen konponbidea.

2. ariketa

Gaia kontuan hartu eta aparteko orrian dagoen **leihoa** bete behar duzu.

Gutxienez 100 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Bi seme-alaba dituzu eta egunero bazkaltzen dute eskolako jantokian. Ez zaude batere konforme bertako menuekin eta antolaketarekin.

Idatzi email bat eskolako jantokiaren arduradunari, eta horretarako honako puntu hauek hartu kontuan:

- Adierazi zure kezka.
- Azaldu oraingo menuei eta antolaketari zein arazo ikusten diezun.
- Proposatu zein izan daitezkeen alternatibak.

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

- **1. ariketa:** aukeratu erantzuna.
- **Irakurgaia:** «SERGIO HERNANDEZ “TXENTXO”»

1.	A	2.	B	3.	B
4.	B	5.	C	6.	C
7.	A	8.	A	9.	A

- **2. ariketa:** lotu esaldiak eta testuak.
- **Irakurgaia:** «JAIETAKO PROGRAMAREN AZALA»

10.	C	11.	A	12.	B	13.	A
14.	C	15.	B	16.	A	17.	B

- **3. ariketa:** lotu galderak eta erantzunak.
- **Irakurgaia:** «ANDRES VILARIÑO»

Hutsuneak	18	19	20	21	22	23	24	25
Galderak	C	F	A	D	H	G	I	E

Soberakoa	B
-----------	---